

UDAL-BATZARRA 02/08

UDAL-BATZARRAK, 2008ko OTSAILAREN 12an EGINDAKO OHIKANPOKO ETA URGENTZIAZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Peñagarikano Labaka

ZINEGOTZIAK:

Ainitze Etxaniz Iraola

Eider Garmendia Arrieta

Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga

Gregorio Zuaznabar Urkola

Fidel Azpiroz Arrillaga

Jose Ignacio Otermin Garmendia

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko otsailaren 12an iluntzeko zortzirak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohikanpoko eta urgentziazko Bilkura egin asmoz Pedro M^a Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran eta Alazne Ruiz Luluaga zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi eta idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

1.- BILKURA PRESAKOTZAT JOTZEA.

“Bilkura presakotzat egitea erabaki genuen alde batetik azken aldian ematen ari diren gertakizunen larritasuna ikusita eta euskaldunen eskubideen ukazioa behin eta berriz ematen delako eta beste alde batetik ideien ilegalizazio politizatu handi bat ematen ari delako eta gertatzen ari dena normaltasun ororen gainetik gelditzen dela iruditzen zaigulako. Horregatik, pentsatu genuen bilkura egitea eta urgentziazko bilkura hori egiteko lehen eta behin onartu egin beharko genuke. Bozkatu egin beharko dugu”.

Alkate-Lehendakari jaunak, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2 b) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79. artikuluan diotena bete nahieran, bilera presakotzat izendatzea bozketara eraman dute, eta aho batez onetsirik geratzen da.

El Sr. Alcalde-Presidente en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 46.2 b) de la Ley 7/1985, de 2 de Abril y del art. 79 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, somete a votación la declaración de urgencia de la sesión y ésta es aprobada por unanimidad de los reunidos.

2.- SUSPENTSIOARI BURUZKO MOZIOA.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri egiten du:

El Sr. Alcalde procede a dar lectura de la siguiente moción:

“UDAL OSOKO BILKURARI. EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakita Espainiar estatuak berriro erasotzen du Euskal Herria. Alderi Politikoen legea erabiltzen dute herri honen eskubideak jazartzeko, egitasmo politikoak lekuz kanpo uzteko, independentziari ateak ixteko. Espainiar Konstituzioak herri honen geroari itxi nahi dizkio ateak, gatazkaren konponbidea ukatu eta herri honen eskubideak urratzen jarraitu. Hori da, berriro ere, PSOEko gobernuak herri honi eskaintzen diona: errepresioa eta konstituzioa.

Eraso honek ageriago uzten du pairatzen dugun demokrazia eza. Espainiar legedia eta justizia deitzen duten hori euskal herritarren eskubideak ukatu eta urratzeko besterik ez du balio. Espainiar Konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herria.

Une erabakiorra bizi dugu, gure herriaren borondatea ukatzen jarraituko duen Konstituzioari atxiki edo Euskal Herriari erabakitzeko eskubidea aitortu eta gatazkari behin betiko konponbidea eman. Alderi Politikoen Legearen aplikazioarekin bat egin edo euskal herritarren borondateari bide eman. Hori da jokoan dagoena, eta horretara dator azken eraso hau. Konponbidearen alde borrokatzen duen independentismoari eraso egiten zaio herri honi iruzur berria egin nahi zaiolako. Une hauetan PSOE eta PNVk iruzurra prestatzen ari dira, herri honen eskubideak ukatzen dituen markoa erreformatu nahi dute. Independentziari ateak itxi, gatazkari konponbidea ukatu eta alderdi interesak lehenetsiz markoa iraurarazi nahi dute.

Ez gaude iruzurrak onartzeko prest. Herriak konponbidea eskatzen du, gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugu. Ukazioa, inposizioa, errepresioa, Alderi Politikoen Legea, Konstituzioa. Guztien gainera herriari hitza ematea, herriak aukera politiko guztien artean, independentzia barne, erabaki dezan, horretan datza nozitzen dugun gatazkaren konponbidea. Marko berri bat behar du gure herriak, marko demokratiko bat Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroarentzako.

Aipatu guztiari jarraituz honako mozioa aurkezten dugu, udal osoko bilkurak eztabida eta onar dezan:

1.- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki honek Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu, Euskal Herriaren independentziari ateak ixtea.

2.- Udal honek herritarren borondatean du oinarri, hortaz, herritarren borondatearen aurka egiten duen lege edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen. Alderi Politikoen Legea Euskal Herrian independentismoa jazartzeko erabiltzen da eta hori onartezina da. Espainiar Konstituzioaren eskutik ez dago euskal herritar izaterik, ez dago eskubiderik, ez dago Euskal Herria. Eta hori onartezina da.

3.- Udal hau ez dago herriak aukeraturiko ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest, izan udal hauteskundeetan jazarpena jasan zuten zerrendetako kide izan suspentsioa eragina jasango dutenak. Hortaz, bere babes osoa eskaintzen die EAE-ANV udal taldeko kideei eta erabaki honetatik eratorri daitezkeen ondorioei aurre egiteko konpromiso irmoa hartzen du. Hori horrela mozioarekin batera aurkezten den Neurrien Zerrenda onartzen du udal honek.

4.- Udal honek proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikatzen du, independentzia barne. Hori da, gainera, Euskal Herriak bizi duen gatazkari konponbidea emateko bidea, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herritar guztiak proiektu guztien artean erabakitzeko eskubidea errespetatuko duen marko demokratiko bat eraikitzea, hain zuzen ere.

5.- Udal honek erabaki honi aurre egiteko lemapean, eta herritar guztiak parte hartzera deitzen ditu.

6.- Onartutakoaren berri emango zaie herritar guztiei zein hedabideei.

EAE-ANV UDAL TALDEAREN ESKUBIDEAK BERE OSOTASUNEAN BERMATUAK IZAN DAITEZEN HARTZEN DIREN NEURRIEN ZERRENDA.

- 1.- *Udal honek 2007ko maiatzaren 27an herriak emandako bozetan du oinarri eta boza guztiak kontutan hartua herritarrek aukeraturiko ordezkari guztiak aitortza osoa eta eskubide guztiak bermatuak izan ditzaten neurriak hartuko ditu.*
- 2.- *EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubide guztiak bermatuak izango dira.*
- 3.- *EAE-ANV Udal Taldeari bere izaera errespetatuko zaio.*
- 4.- *EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek udal jardueran era normalizatu batetan parte hartzeko aukera guztiak izango dutela bematuko da, beste Udal Talde eta hautetsiek izango dituzten berdinak, hain zuzen ere.*
- 5.- *EAE-ANV Udal Taldeak hautetsiek udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta era normalizatu batetan bete ahal izango dituztela bematuko da.*
- 6.- *EAE-ANV Udal Taldeak zein hautetsiek beraien lana garatzeko dituzten udal trensa eta baliabide zein diru ekarpen guztiak bematuko zaizkie.*
- 7.- *Erabaki honen ondorioz EAE-ANV Udal Taldeak edo hautetsiek jaso dezaketen eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak bere babes eta laguntza osoa eskainiko du”.*

EAJ/PNV talde politikoko bozeramailea den Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak hitza eskatzen du ondorengo mozio alternatiboa irakurtzeko:	El portavoz del grupo político EAJ/PNV D. Fidel Azpiroz Arrillaga solicita la palabra para leer la siguiente moción alternativa:
--	--

“Hona, Anoetako EAJ/PNVren zinegotzi taldeak, erakunde politikoen lege kanporaketak gauzatu diren honetan, Udal honi aurkezten dion mozioa.

- 1.- *Bizi dugun etengabeko eskubideen zapalkuntza ez zaio, inolaz ere, gure herriak behar eta desio duen soluzio bilaketari lagungarri. Soluzioa baitator, batetik, eskubide ororen zapalkuntza baztertze eta bestetik, gure herriak bizi duen gatazka politikoa soluzio bidean jarriko duen akordio politikoa bilaketatik, herri honi berezkoa zaion erabakitze eskubidea onarri duela.*
- 2.- *Erakunde politikoen aurkako lege kanporatze prozesuek, askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna, elkarte askatasuna eta irritaren partehartzea bezalako ei –guztiak funtsezko eskubide-eragiten diete zuzen zuzenean; halaber, gure Herriko elkarbizitza, eta gure gizarteak desio duen normalizazio politikotik urruntze gaituzte oso.*
- 3.- *Indar eta adierazpen politiko orok du, guztiek baldintza berdinetan, Euskal Herriko erakunde guztietako bizitza politiko eta sozialean parte hartzeko eskubidea, bakoitzari hautesleek eskaini dioten ordezkariaren arabera; eta berriro ere adierazi nahi dugu, azken hauteskundeetan lortutako ordezkari horri zor zaion guztizko errespetuz eginen dugula lan.*
- 4.- *Pertsona ororen eskubide guztien aldeko egiazko lanak, eta Herri honi bere etorkizuna askatasun osoz eta demokratikoki erabakitzeko berezkoa zaion eskubidearen aldeko lanak, -bataren eta bestearen aldeko lanak- eramanen gaitu bakea eta gatazka politikoa soluzio biderantz. 2008ko otsaila”.*

Aurkezturiko mozioen arabera, Alkate jaunak lehen irakurritako mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz:	Ante las mociones presentadas, el Sr. Alcalde somete a votación la moción leida en primer lugar obteniendo el siguiente resultado:
---	--

Aldeko botuak/Votos a favor: BOST/CINCO (EAE talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)

Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Ondoren, Alkate jaunak bigarren go mozioa bozketara eramaten du ondorengo emaitza lortuz:	Acto seguido el Sr. Alcalde somete a votación la moción leída en segundo lugar obteniendo el siguiente resultado:
---	---

Aldeko botuak/Votos a favor: DOS/BI (EAJ talde politikoarenak)
Aurkako botuak/Votos en contra: BOST/CINCO (EAE talde politikoarenak)
Abstentzioak/Abstención: BAT ERE EZ /NINGUNO

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, lehen irakurritako mozioa onesten da	Por lo que a la vista del resultado obtenido en la votación, se aprueba la moción leída en primer lugar.
---	--

3.- 2008KO MARTXOAREN 9AN OSPATUKO DIREN HAUTESKUNDE OROKORRAK DIRELA ETA, MAHAIKIDEEN HAUTAKETA.

2008ko martxoaren 9an ospatuko diren Hauteskundeetako espedienteak ikusirik.	Visto el expediente con relación a las próximas Elecciones a Cortes Generales a celebrarse el 9 de marzo de 2008.
--	--

Hauteskundetarako Lege Organiko Orokorren 26. artikulua dioenaren arabera, hauteskunde-mahaietako kideen izendapena Udaletxetako Udalbatzetan egindako zozketa publiko bidez egin behar da.	Visto el art. 26 de la Ley Orgánica Electoral General por el que se señala que la designación de los miembros de las Mesas Electorales corresponde a los Ayuntamientos en Pleno.
--	--

Bi hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, ondorengo suertatuz:	Se procede al sorteo público para designar a los miembros de las dos mesas electorales, del que resulta:
---	--

. A MAHAIA/MESA A

Lehendakaria/Presidente:

- Titularra: Ainhoa Gomez Gomez (hautesle zbkia/nº elector 379)
- 1. Ordezkoa/1er suplente: Mª Aranzazu Elizetxea Yarzabal (282)
- 2. Ordezkoa/2º suplente: Esteban Gonzalez Duran (383)

1.go Bokala/1er Vocal:

- Titularra: Joaquin Mª Iturrioz Aramburu (462)
- 1. Ordezkoa/1. suplente: Zuriñe Goenaga Zabala (367)
- 2. Ordezkoa/2ª suplente: Ainhoa Gabirondo Etxaniz (326)

2. Bokala/2ª Vocal:

- Titulara: Miren Maite Aizpurua Etxeberria (20)
- 1. Ordezkoa/1er suplente: Ekain Garmendia Mugica (357)
- 2. Ordezkoa/2º suplente: Juan José Herrero Villaverde (417)

. B MAHAIA/MESA B

Lehendakaria/Presidente:

- Titularra: Angel Mª Uranga Churruca (298)
- 1. Ordezkoa/1er suplente: Montserrat Lopez Arregui (35)
- 2. Ordezkoa/2º suplente: Nekane Urkia Arana (303)

1.go Bokala/1er Vocal:

- Titularra: Eleuterio Postigo Perez (199)
- 1. Ordezkoa/1er suplente: Alberto Merino Lopez de la Calle (89)
- 2. Ordezkoa/2ª suplente: Mª Zoila Lopez Bello (37)

2. Bokala/2ª Vocal:

- Titulara: Manuel Julian De Toro Querejeta (292)
- 1. Ordezkoa/1er suplente: Francisco Sánchez Martínez (241)
- 2. Ordezkoa/2º suplente: Kepa Ugarte Endeiza (294)

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-
Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat
jotzen du iluntzeko zortziak eta
hogeitahamabost minutu direnean, eta neuk
Idazkariak ziurtatzen dudalarik.

Y sin más asuntos que tratar, el Sr.
Alcalde-Presidente da por finalizada la
sesión a las veinte horas treinta y cinco
minutos, lo que yo, la Secretario certifico.